

Eibar Futbol Taldearen igoeran ermuarrak ere ardatz

Ekainaren 24an, Eibar Futbol Taldeak 2.A mailara igotzea lortu zuen Rayo Vallecano taldea garaitu ostean. Iaz maila galdu eta urtebete besterik ez dute behar izan eibartarrek maila berreskuratze-ko. Poza eta jaia izan ziren nagusi jokalaria, entrenatzaile eta jarraitzaileen artean. Guztien artean, baziren Ermuko 3 ordezkari; Javi Perez, zuzendari teknikoa, German Andueza delegatua eta Alberto Argoitia, zuzendaritzako kidea.




JAVI PEREZ: ZUZENDARI TEKNIKOA

"Taldea lanaren ondorioa izan da hau. Zuzendaritza, jokalaria, talde teknikoa, guztiok bat eginik egon gara. Guztiok norabide berean jokatu dugu eta emaitza izugarria izan da, denboraldia ere bikaina izan da. Playoff-ean mailari eutsi diogu eta horra hor igoera. Azken neurketan 2-0 irabazten joan ostean, aukera dezente galdu genituen eta azkenean, asko sufritu genuen, beraz, orain gozatu egin beharko dugu. Egun batzuetan atsedean hartu eta gero, datorren urtekoa diseinatzeko hasiko gara. Momentu hone-tan iaz hainbeste sufritu zuen taldea eta nire sendia dauzkat gogoan".




GERMAN ANDUEZA: DELEGATUA

"Izugarria izan da. Azken urte hau oso gogorra izan da niretzat eta taldeko kide guztiak alboan izan ditut. Delegatu gisa iaz 4 hilabete eman nituen eta aurtengo denboraldi osoa egin dut lan horretan. Oso gustorara aritu naiz. Taldeak oso maila ona erakutsi du eta igoera merezi genuen. Jarraitzaileen jarrera ezin utzi esker-tu gabe, ondoan izan ditugu eta datorren urtean ere, alboan izango direla badakigu".



ALBERTO ARGOITIA: ZUZENDARITZAKO KIDEA

"Jaime Barriosoren taldean sartu nintzen duela 5 urte eta alderdi teknikoan egon naiz. Futbol jokalaria ohia izan nintzenez, nire lana aholkulari lana egitea izan da. Urte gogorrak izan dira azken bi hauek. Iaz maila galdu ostean oso lan zaila zen urte bakarrean maila berreskuratzea, baina lortu dugu. Liga oso luzea da eta playoff-etara egoera egokian iristea zen gure helburua. Maila oso ona erakutsi ostean, igoera lortu dugu. Orain, datorren urteari begira jarri beharra dago. Gaur egun dagoen zuzendaritzak bere lanak utziko ditu eta zuzendaritza berriak hartuko du lekukoa. Zorterik onena opa diot".



Harategia



M. LAZKANO

BERTOKO OKELAK
Geure Baserrian
Hazitako Txalak
GEUK GIZENDUTAKO
ABELTZANTZA
Merkatua, 36-37 zbk.k
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

OPTICA J. CASADO



Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antiajuak
Eguzkitako Antiajuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA


MIGUEL Harategia



TXORIZOAK
ODOLOSTEAK

Probaleku, 3
☎ 17 05 63
ERMUA
(Bizkaia)

hamburguesería TITANIK



Pintxo dastaketa
poteoan

Kantabria 2 • Tlf: 17 67 83